

Alkarbidek -Bizkaiko Euskara Zerbitzuen bilguneak- koordinatuta,
2-3 urteko seme-alabak dituzten 7.000 familiari zuzenduko zaie kanpaina

BIZKAIKO 33 UDALERRIK EUSKARAZKO EREDUEN ALDEKO INFORMAZIO KANPAINA ABIAN JARRI DUTE

Bizkaiko 33 udalerrik parte hartuko dute **2014-2015 aurrematrikulazio kanpainan** umeak lehen aldiz matrikulatzen dituzten gurasoen artean banatzeko.

Kanpainaren ezaugarri nagusiak

Orain dela bost urtetik hona *D bitamina, Aberastu bere heziketa!* egitasmoa abian jarri izan da Bizkaiko hainbat udalerritan eta aurten ere Bizkaiko 18 udalerri eta 2 mankomunitatek elkarlanean burutu dute ekimena.

Sasoi desberdinetan banatuko dute aipatutako informazio-kanpaina, udalerri bakoitzak euren urteko plangintzaren barruan, baina betiere 2-3 urteko umeen eskolatzeko-aldia hasi baino lehenago, gurasoek bidalitako informazioaren inguruan hausnarketa egiteko astia izan dezaten gurasoek.

Alkarbidek, Bizkaiko euskara teknikarien bilguneak, koordinatu duen ekimen honetan guztira 7.000 liburuxka inguru banatuko dira kanpainan parte hartu duten udalerrietako gurasoen artean.

Aurten ere, iazkoaren ildotik, kanpainari buruzko iritzia jasotzeko inkesta bidaliko zaie hartzaillei. Inkesta horren bidez kanpainari buruzko iritzia emateaz gain, gurasoek euren kezka eta zalantzak ere helarazi ahal izango dizkiete euskara zerbitzuetako arduradunei eta inkesta betetzen duten guztien artean euskarazko produktuen sorta zozketatuko da.

Helburua

Umeak eskolan lehen aldiz matrikulatzen dituzten gurasoei D ereduari buruzko informazioa ematea eta eredu hori aukeratzeko arrazoiak azpimarratzea.

Parte hartzaileak

Bizkaiko **18 udal** eta **2 mankomunitate**. Guztira, honako 33 udal hauek:

Abanto Zierbena, Arrigorriaga, Balmaseda, Basauri, Berango, Bilbao, **Enkarterriko Mankomunitatea**, Erandio, Etxebarri, Gatika, Gordexola, Leioa, Maruri-Jatabe, Mungia, Ortuella, Sestao, Txorierriko Mankomunitatea, Urduña, Zaldibar eta Zierbena.



Kanpainaren edukia

Kanpainaren osagarri nagusiak lau dira:

- Udaleko ordezkariaren batek (alkateak edo euskara zinegotziak) sinatutako gutuna, euskarazko eredueta ikasteak dakartzan abantailen berri ematen duena.
- Gutuna bidaltzeko gutunazala. Gutunazalaren beraren barruko aldean agertzen dira D ereduak aukeratzeko arrazoiak.
- Eskolan hasiko diren neska-mutikoentzako oparia (kanpainaren leloa idatzita duen neurgailua).
- Inkesta. Gurasoek kanpainari buruz duten iritzia eta gaiaren inguruan dituzten kezak eta zalantzak jaso ahal izateko. Inkesta betetzen duten guztien artean euskarazko produktuen sorta zozketatuko da.

Hartzaileak

Gutxi gorabehera, kanpainaren sustatzaile diren udalerrietan bizi eta 2-3 urteko umeak dituzten 7.000 familia izango dira.

